

ANDRAMAIXEK

700
AZKOITIA



2024 – Abuztuaren 14tik 18ra



GORA BIHOTZAK!

Ez du hutsik egiten. Urte sasoi honetan, gazteek tximeletak sentitzen dituzte urdailean, barraketako argiak ikusita, poztasunak menderatzen ditu umeak, eta bizitzaren eguerdia pasa eta aurrera goazenok, jai egunei patxada pixka batekin eta nostalgia handiagoarekin heltzen diegu, gaztetasuna iheskorra delako, eta zalaparta eta algara egunetan hori nabarmenagoa egiten delako. Horregatik, guztiontzat aldarrikatu nahi dut herriko festez intentsitatez goatzeko eskubidea, gure kargen lokarriak askatzen utziz, eta dibertsio sanoari bide emanez.

Penak alde batera uzten saiatzeko egunak dira, eta, herria Azkoitia 700en ospakizun ekitaldietan murgilduta egoteaz gain, egitarau zabala prestatu dugu Andramarietarako. Egitarauak 56 jardueratik gora biltzen ditu: ekitaldi ofizialak, kontzertuak, haur-jokoak, kale-ikuskizunak, pilota partidak, etab.

Dena normaltasunez joan dadin eta elkarbizitzan ez dezan eraginik izan, herriko jaiak ospatzeak dakarrenetik haratago, jende askori dagokio lan egitea festa egunetan. Denei eskerrak ematea tokatzen zaigu, segurtasunaz eta kale-garbiketaz arduratzen direnengandik hasi eta egitaraua potoltzen laguntzen duten kultur eta kirol elkarteekin, edota beste hainbat ekintza prestatzen laguntzen duten boluntarioekin jarraituz.

Jaietako euforiaren atzean, zuhertasuna eta giro ona izan daitezela nagusi.

Berdintasunik gabe, ez dago festarik.

Errespeturik gabe, ez dago festarik.

No falla. Por estas fechas, la juventud siente mariposas en el estómago, las luces de las barracas hacen que la felicidad inunde a los peques y quienes hemos superado el mediodía de la vida, afrontamos estos días festivos con más serenidad y mayor nostalgia, por aquello de que la juventud es fugaz, y porque en los días de barullo y algarabía queda más de manifiesto. Por ello, reivindico para todas y todos el derecho a disfrutar de la fiesta con intensidad, soltando los amarres de nuestras cargas y dejando pasar ratos de sana diversión.

Son días para intentar dejar de lado las penas y si bien este año estamos inmersos en la celebración de Azkoitia 700, hemos preparado un extenso y completo programa que abarca 56 citas, entre actos oficiales, conciertos, juegos, actividades callejeras, partidos de pelota, etc.

Para que todo fluya con normalidad y la convivencia no se vea alterada más allá de lo que conlleva la celebración de unas fiestas patronales, hay mucha gente a la que le toca trabajar y a la que le debemos nuestro agradecimiento empezando por quienes se encargan de la seguridad y de la limpieza de calles, y siguiendo por las asociaciones culturales y deportivas que ponen su grano de arena y organizan actividades que vienen a engrosar el programa de fiestas, sin olvidar a las personas voluntarias que participan en otras muchas actividades.

Que tras la euforia festiva, reine la cordura y el buen ambiente.

Sin igualdad, no hay fiesta.

Sin respeto, no hay fiesta.

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!







Abuztuak **10**
Larunbata

11:00 Martittera igoera, Herriko plazatik abiatuta. Jokin Ormaetxea txirrindulari elkarteak antolatuta. Izen ematea (doan): egunean bertan, 10:00etatik 10:45era, Herriko plazan.

Abuztuak

14

Asteazkena

12:00 2024ko Andramari jaiei hasiera emango dien **txupinazoa** botako da, Herriko Musika Bandak “Ondo pasau Andramaixek” jotzen duen bitartean. Ondoren, Musika Bandarekin, Parrokiko abesbatzarekin eta Iraurgi abesbatzarekin batera, herritarrok **“Azkoitia”** abestuko dugu.

12:30 Azkoitiko, Txantreako eta Buztintxuriko erraldoi eta buruhandien kalejira abiatuko da.

17:00 Haur parkea Balda plazan (puzgarriak, gazteluak...)

19:00 ROCKALEAN musika kale ikuskizuna.

19:50 Udalbatzari Parrokira lagunduz, Txalkor Txistulari taldeak, “Alkate Soinua” joko du.

20:00 Azkoitia 700 dela eta , Parrokiko Abesbatzak “Te Deum” kantatu gregorianoa abestuko du.

Ondoren, herritarrek eta Parrokiko eta Iraurgi abesbatzek, Ignacio Busca Sagastizabalen “Salbea” eta Aita Nemesio Otañoren “Ave Maria” abestuko dituzte, zazpi eta bost ahotsetara, hurrenez hurren. Organoan: Jose Luis Frantzesena.

23:00 NOGEN taldearen kontzertua, Herriko plazan.

23:00 SexuBizi Gune Morea zerbitzua eskainiko da. Informazio, aholkularitza eta genero erasoen aurkako babes gunea, Parrokia aurrean.

/02:00 Drogen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko zerbitzua, Parrokia aurrean.



Abuztuak **15** Osteguna

09:30 Zubiondo Gaiteroak taldearen kalejira.

10:00 Herriko Musika Bandaren eta Txalkor Txistulari Taldearen kalejirak.

10:50 Udal ordezkariak korporazioan Parrokira joango dira, Herriko Musika Bandak eta Txalkor Txistulari Taldeak lagunduta, “Alkate soinua”ren doinupean.

11:00 Meza Nagusia. Parrokiko abesbatzak eta Iraurgi abesbatzak Pedro Jose Peñagarikanoren “**Euskaldunen Meza**” abestuko dute, bost ahotsetara.

12:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira, **Zubiondo Gaiteroak-en konpainian.**

13:00 Udal Musika Bandaren eta Txalkor Txistulari Taldearen kontzertua, Kontzejupean. Egitaraua:

Musika Banda, Carlos Muñozen zuzendaritzapean

La Morenica - Manuel Carrascosa

Fantasia de Zarzuelas - Eduardo Ramírez

Txalkor Txistulari Taldea, Pello Larrañagaren zuzendaritzapean

Oñatz - Oñatiko dantzak Jesus Irizar “Txutxinen” oroimenez

Bergara Minuetoa - Vicente de Monzón

Musika Banda:

The planets “Jupiter”. The Planets- Gustav Holst

Amerland - Jacob de Haan

Olympic Spirit - John Williams

17:00 Afizionatuen pilota partida eta **CaixaBank Masters Txapelketa**, Gurea Pilotalekuan.

**ELORDI - GABIRONDO
EGIGUREN V - TOLOSA**

**PEÑA – ZABALETA
ZABALA – IMAZ**

17:30 Simuladoreak eta Txiki Chef, Herriko plazan.

19:00 MAGIA POTEOA.

19:30 DJ DAVILA, Balda plazan.

20:00 Azkoitiko Gimnasia Erritmiko taldearen erakustaldia, Parroki aurrean.

20:00 Zubiondo gaiteroen kalejira.

23:00 I LOVE 80's taldearen kontzertua, Herriko plazan.



Abuztuak **16** Ostirala

09:30 Zubiondo Gaiteroak taldearen kalejira.

10:00 Txalkor Txistulari Taldearen kalejira.

10:50 Udal ordezkariak korporazioan Parrokira joango dira, Txalkor Txistulari Taldeak lagunduta, "Alkate Soinua"ren doinupean.

11:00 Meza Nagusian. Herritar erlijioso eta lekaimeak partaide direla, Parrokiko Abesbatzak eta Iraurgi Abesbatzak Miguel M. Azpiazuren "Urrategiko Amari Azkoitiarren meza" abestuko dute bi ahotsetara. Organoan: Jose Luis Frantzesena. Zuzendaria: Carlos Muñoz

12:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira.

12:15 Ohiko Aurrekua, Herriko plazan.

13:00 Udal Musika Bandaren eta Zubiondo Gaiteroak taldearen kontzertua, Kontzejupean.
Egitaraua:
Musika Banda, Carlos Muñozen zuzendaritzapean
Emon-Emon - Feliciano Beobide
Virginia - Jacob de Haan

Zubiondo gaiteroak

Pamplona, Feria del toro - Pasodoble

Todas las mañanitas - Habanera

La Pilindros - Jota

Zubiondo Gaiteroak eta Musika Banda

Edurne - arr: Txomin Mugika

Rigodón - arr: Candido Beristain

Musika Banda

Olympic Fanfare and Theme - John Williams

Nino Bravo en Concierto - Manuel Calero

17:00 Ur-parkea, Balda plazan.

19:00 BENTA ZARREKO MUTIL ALAIAK taldearen musika kale ikuskizuna.

23:00 Suzko Erroberak, Vulcano etxearen eskutik.

23:30 ESNE BELTZA taldearen kontzertua, Herriko plazan.



Abuztuak **17** Larunbata

09:00 **Azkoitiko Kultur Elkarteak** sorturiko **41. Inazio Iriarte**
/10:00 **Margo Lehiaketako zigilu jartzea**, Portaleburu Erakusketa
Aretoan. Lanak 14:00etatik 15:00etara bitartean jasoko dira
toki berean.

09:30 **Herriko trikitilari eta dultzaineroen kalejira.**

09:30 **Herriko Ganadu Erakusketa**, Plazaberrin.

11:00 **Herriko trikitilari gazteen kalejira.**

12:00 **Erraldoi eta buruhandien kalejira, Txalkor Txistulari**
Taldeak lagunduta.

12:00 **Herri kirol jaialdia**, Herriko plazan.

Harri-jasotzaileak

Goenatzol – 200 kiloko errektangularra

Norde – 200 kiloko errektangularra

Udane Ostolaza – 103 kiloko errektangularra

Karmele Gisasola – 75 kiloko zilindroarekin

Aizkolariak

Txikia – Mugerza

Larrañaga – Corchero

Bikoteko batek zutik ta besteak etzanda kanerdikoa

Harri-jasotzaileak

Goenatzol – 138 kiloko kubikoa

Norde – 88 kiloko kubikoarekin

Udane – 50 kiloko kubikoarekin

Karmele Gisasola – 70 kiloko baldarrakin

Aizkolariak

Oinbiko bana bikoteka txanda librean nork lehenago ebaki.

Jose Mari Esnaolak sei metroko altueran enbor bat moztuko
du.

Prueba mistoa

Larrañaga – Corchero – Norde – Gisasola

Txikia – Mugerza – Goenatzol – Ostolaza

Bi kanaerdiko sei jasoaldi 100 kiloko bolari, emakumeek 63ko
bolari bi egurreko.

Guztira zortzi egur eta 24 jasoaldi

Harri-jasotzaileak hasita.

12:30 **Jubilatuen meza, Parrokian.**

14:30 **Jubilatuen anai-arreba arteko bazkaria**, Elkarguneko
Herriko plaza aretoan. Bertan, aurten **90 urte betetzen**
dituzten herritarrak omenduko dira.

17:00 **KULKI, baserriko herri kirolen haur-parkea, Herriko**
plazan.

18:00 **Dantzari Bikote Helduen Txapelketa**, Balda plazan.
(Eguraldi txarra egiten badu, Baztartxo antzokian).

19:00 **DEIADAR txaranga**, herriko kaleetan.

19:30 **41. Inazio Iriarte Margo Lehiaketako sari banaketa**,
Portaleburu Erakusketa Aretoan. Jarraian, lehiaketaren 40
urteetako ibilbidea biltzen duen Juan Mari Arrizabalagaren
liburuaren aurkezpena.

22:00 **XII. Film Laburren Lehiaketako filmen emanaldia eta**
sari banaketa. Aurtengo gaia: **“Benetako gertaeretan**
oinarrituta”, Herriko plazan.

Ondoren, **HAUEK taldearen kontzertua**, Herriko plazan.



Abuztuak **18** Igandea

- 11:00** Atletismo saioa, Balda plazan. Ondoren, **XXII. Andramaixetako Milia eta XXI. Kale Atletismo Erakustaldia**, Xeye atletismo taldeak antolatuta.
- 12:00** UK03 txaranga, Herrian zehar.
- 14:30** **Bazkari herrikoia**, Herriko plazan.
- 16:30** **BRINCADEIRA batukada. MËROGRADE ikuskizuna**, herriko kaleetan.
- 17:30** **Apar Festa**, Balda plazan.
- 18:30** **Zezenak**, Plazaberrin.
- 19:30** **UK03 txaranga**, Herrian zehar.
- 21:30** **GOZATEGI** taldearen kontzertua, Herriko plazan.
- 00:00** **Suzko Zezena**, Herriko plazan.
- 00:15** **BRINCADEIRA batukada. GLOWDRUMS ikuskizuna**, herriko kaleetan.
- 23:00** Alkoholaren kontsumoak eragiten dituen arriskuak
/02:00 prebenitzeko eta murrizteko zerbitzua egongo da Parrokia aurrean.
- 23:00** SexuBizi Gune Morea zerbitzua eskainiko da. Informazio,
/02:00 aholkularitza eta genero erasoen aurkako babes gunea, Parrokia aurrean.

Abuztuak **19** Astelehena

- 22:00** **14. DIVA – SAT Idi Dema Saria**, Herriko probalekuan.

Abuztuak **20** Asteartea

- 22:00** **14. DIVA – SAT Idi Dema Saria**, Herriko probalekuan.







ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK

Azkoitian

Erraldoiak eta buruhandiak Euskal Herriko herri-jaietako folklorea sakon erroturiko elementuak izan dira. Azkoitian ezin izan ditugu antigoaleko garaietan dokumentatu, nahiz eta ospakizun batzuetan presente egotea litekeena izan. 1622. urtean eta Loiolako San Inazioaren kanonizazioagatik antolatu ziren bozkariozko ekitaldietan, antzeko ikuskizun bat izan zen, baina suzko basapitzia baten itxurapean. Honela deskribaturik dago: “Zaldi itxurakoa, suziriz josita, zaldunarena egiten zuen deabru batek gidatua (...), deabru-irudi ikaragarria zen, Palermokoa ezizenez”. Artifizio hau Europan oso arrunta izan zen eta Espainiako hainbat tokitan “Tarasca” deitzen zioten; Kataluniakoak oso ezagunak ziren, eta Drac izena zuten. Zezensuzkoa ere familia berekotzat jo daiteke, baina Azkoitian horren tradizioa lehenagotik dator.

Dena den, erraldoi eta buruhandien presentzia etengabea gure herriko kaleetan egiaztatu ahal izateko, 1931. urtera arte itxaron behar dugu. Urte hartan, on Juan Jose Alberdi alkate jaunak, herririk gehienetan beren konpartsa propioa zeukatela ikusita, Markinako Udalarari hango erraldoi eta buruhandien konpartsa eskatu zion, gure jaiak girotzeko asmoz. Hain arrakastatsua izan zen, non udalbatzak erabaki baitzuen horrelako batzuk erostea hurrengo urterako. Hori dela eta, Bartzelonako “El Ingenio” etxearekin jarri ziren harremanetan eta pare bat erraldoi eta bi buruhandi maskara enkargatu zizkieten, 650 pezetan bata eta 144 pezetan bestea. Aldiz, jantzien truke aparte eskatzen zuten 500 pezetako prezioa garestiegia zela iritzita, Udalak Josefa Antonia Larrañagari, “Xapatero”en amari, egin zion jantzien enkargua.

1932ko Andramarietan, abuztuaren 14ko arratsaldeko seietan, lehendabiziko kalejira egin zuten, dultzaineroak eta danbolindariak lagun zituztela. Orain dela laurogeita hamabi urte, hain zuzen. Adineko bi pertsona irudikatzen zuten, eta buruhandiak hiru puntako kapela zerabilten bi abarkadun ziren.

1947. urtea, artean gerraostetik irten gabe, ospakizun garrantzitsuz josita egon zen: Raimundo Alberdik diseinatutako dorre berria inauguratu zen; gero, Atano III.aren omenez egindako oroitarririk iritsi ziren; kanpandorrea diseinatu zuen arkitekto bera arduratu zen Plazako iturria egiteaz; eta Jose Lopetegik pilota-txapeldunaren bustoa egin zuen. Giro horretan, erraldoi eta buruhandi berriak ekartzea pentsatu zuten, baina erabakia hurrengo urtera arte atzeratu zen. 1948. urteko Andramarietan Aittitte eta Amama erraldoi berriak agertu ziren. Bikote hau Valentziako Miguel Insa etxean erosi zuten, eta Josefa Antonia Larrañaga andrea arduratu zen berriro jantziak egiteaz. Erraldoi horiek jai asko girotu zituzten, hirurogeiko hamarkadaren amaieran “aittite” izenez ezaguna zen erraldoiak Parrokiaren aurrean erorikoa izan zuen arte, zeharo puskatuta geratu. Hurrengo urtean, erraldoi berriak ekarri zituzten, oraingoan Zaragozako Arafí lantegian eginak eta On Kixote Mantxakoa eta Dultzinea Tobosokoa irudikatzen zituztenak. Aurrekoak bezala, udal alondegiko lokaletan gordeta geratu ziren. Eraikin horren berrantolaketa dela-eta, beste lokal batera eraman zituzten,





Gurea frontoiaren aldamenean, baina lokal berria oso hezea zenez, handik gutxira erabat hondatu ziren. “Mantxako” erraldoi hauen bizitza laburraren ostean, 1977an, Epifanio Zubizarretak, Ospakizun Batzordeko Buru zenak, gaur egungo “indiarrak” erosi zituen Zaragozako lantegi berberan, konpartsari ukitu exotikoa emanaz, eta ospe handiko buruhandiak gehituz, sorgina edo deabrua kasu.

Festetako multzo bitxi hau osatu nahian, 2002an, Udalak beste bi erraldoi enkargatu zituen jatorrizkoen oroimenez, “aittite”aren eta “amama”ren irudiak sinbolizatzen zituztenak. Bi urte geroago, 2004. urtean, pilotari bikotea batu zitzairen, Azkoitia “pilotari sorlekua” dela aditzera emateko asmoz; eta “neska indiarraren eta mutil indiarraren” jantzi berriak ere diseinatu zituzten. Irungo Javier Garateren lantegian egindako irudi berri hauekin, Azkoitiak badu bere konpartsa, sei erraldoiz eta buruhandi ugariz osatua, eta gure kaleetara aterako dira berriro, dultzaineroak eta txistulariak lagun dituztela.

* Versión en castellano del artículo en:
<https://azkoitia.eus/es/noticias/12110-erraldoiak-eta-buruhandiak-azkoitian-2>

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!!!!

—
Juan Bautista Mendizabal Juaristi
AZKOITIKO KRONIKARI OFIZIALA

10 de agosto, sábado

11:00 Subida a Mártires, con salida desde Herriko plaza. Organiza la Asociación Ciclista Jokin Ormaetxea. Inscripción el mismo día de 10:00 a 10:45h. en Herriko plaza.

14 de agosto, miércoles

12:00 Lanzamiento del **chupinazo** que dará inicio a las fiestas de Andramari de 2024, al son de “Ondo pasau Andramaixek” que interpreta la Banda Municipal de Música. A continuación, junto con la Banda de Música, el Coro Parroquial y el Coro Iraurgi, todas y todos cantaremos “**Azkoitia**”.

12:30 Pasacalle de Gigantes y Cabezudos de Azkoitia, La Txantrea y Buztintxuri.

17:00 **Parque de agua** en Balda plaza (hinchables, castillos...).

19:30 **ROCKALEAN**. Espectáculo musical callejero.

19:50 La Corporación Municipal asistirá a la Parroquia, acompañada por Txalkor Txistulari Taldea, mientras suena “Alkate Soinua”.

20:00 Con ocasión del 700 aniversario, el Coro Parroquial recitará el canto gregoriano “Te Deum”.

Las vecinas y vecinos cantarán la “Salve” de Ignacio Busca Sagastizabal y el “Ave Maria” del padre Nemesio Otaño a siete y a cinco voces, respectivamente. Organista: Jose Luis Frantzesena.

23:00 **Concierto de NOGEN** en Herriko plazan.

23:00 Servicio de prevención de los riesgos que conlleva el consumo de drogas. Delante de la Parroquia.

23:00 SexuBizi Gune Morea. Espacio de información, asesoramiento y lugar de protección ante las agresiones de género. Delante de la Parroquia.

15 de agosto, jueves

09:30 Pasacalle de los gaiteros ZUBIONDO.

10:00 Pasacalles de la Banda Municipal de Música y del grupo de txistularis Txalkor.

10:50 La Corporación Municipal asistirá a la Parroquia, acompañada por la Banda de Música y Txalkor Txistulari Taldea, al son de “Alkate Soinua”.

11:00 **Misa Mayor**. El Coro Parroquial y el Coro Iraurgi cantarán “Euskaldunen Meza” de Pedro Jose Peñagarikano, a cinco voces.

12:00 **Pasacalle de gigantes y cabezudos, acompañado por los gaiteros Zubiondo**.

13:00 Concierto de la **Banda de Música y del grupo de txistularis Txalkor** en el Kontzejupe.

17:00 **Partidos de pelota** en el frontón Gurea. Torneo Masters CaixaBank.

17:30 **Simuladores y Txiki Chef**, en Herriko plaza.

19:00 **MAGIA POTEÓ**.

19:30 **DJ DAVILA**, en Balda plaza.

20:00 **Exhibición de Gimnasia Rítmica**, delante de la Parroquia.

20:00 **Pasacalle de los gaiteros ZUBIONDO**.

23:00 **Concierto de I LOVE'80** en Herriko plaza.

16 de agosto, viernes

09:30 **Pasacalle de los gaiteros ZUBIONDO**.

10:00 **Pasacalle del grupo de txistularis Txalkor**.

10:50 La Corporación Municipal asistirá a la Parroquia, acompañada por Txalkor Txistulari Taldea, al son de “Alkate Soinua”.

11:00 **Misa Mayor**, con la participación de los religiosos y monjas del pueblo, **el Coro parroquial y el Coro Iraurgi**.

12:00 **Pasacalles de gigantes y cabezudos**.

12:15 **El tradicional auresku** en Herriko plaza.

13:00 **Concierto de la Banda Municipal de Música y de los gaiteros ZUBIONDO** en el Kontzejupe.

17:00 **Parque de agua** en Balda plaza.

17:00 **BENTA ZARREKO MUTIL ALAIAK**. Espectáculo musical callejero para todos los públicos.

23:00 Fuegos artificiales, de la mano de la pirotecnia Vulcano.

23:30 Concierto de ESNE BELTZA en Herriko plaza.

17 de agosto, sábado

09:00 Sellado del 41. Concurso de Pintura Inazio Iriarte, en la

/10:00 Sala de Exposiciones Portaleburu. Los trabajos se entregarán entre las 14:00 y las 15:00 horas en el mismo lugar.

9:30 Pasacalles de trikitilaris y dulzaineros.

9:30 Feria de ganado, en Plazaberri.

11:00 Pasacalles de trikitilaris jóvenes de Azkoitia.

12:00 Pasacalle de gigantes y cabezudos, acompañado por el grupo de txistularis Txalkor.

12:00 Festival de deporte rural, en Herriko plaza.

12:30 Misa de la Asociación de Jubilados Plaza Ondo, en la Parroquia.

14:30 Comida de fraternidad de la Asociación de Personas Jubiladas Plaza Ondo. Homenaje a las ciudadanas y a los ciudadanos que este año cumplen 90 años.

17:00 KULKI, parque infantil de deporte rural y tradicional, en Herriko plaza.

18:00 Concurso de Baile Suelto de Parejas en Balda plaza.

19:00 Charanga **DEIADAR**, en las calles.

19:30 Entrega de Premios del 41. Concurso de Pintura Inazio Iriarte, en la Sala de Exposiciones Portaleburu. A continuación, presentación del libro de Juan Mari Arrizabalaga que recopila la historia del concurso de pintura.

22:00 Proyección de los trabajos del XII. Concurso de Cortometrajes y entrega de premios.

A continuación, concierto de HAUEK en Herriko plaza.

18 de agosto, domingo

11:00 Pruebas de atletismo, en Balda plaza. A continuación, **XXII. Milla de Andramaris y XXI. Exhibición de Atletismo**, organizada por Xeye Atletismo Elkartea.

12:00 Charanga UK03.

14:30 Comida popular en Herriko plaza.

16:30 BRINCADEIRA batucada, por las calles. **Espectáculo MËROGRADE.**

17:30 Fiesta de espuma en Balda plaza.

18:30 Vaquillas en Plazaberri.

19:30 Charanga UK03.

21:30 Concierto de **GOZATEGI** en Herriko plaza.

00:00 Toro de Fuego en Herriko plaza.

00:15 BRINCADEIRA batucada, en las calles. **Espectáculo GLOWDRUMS.**

23:00 Servicio para la prevención y reducción de los riesgos que conlleva el consumo de alcohol. Delante de la Parroquia.


23:00 Servicio SexuBizi. Gune Morea Espacio de información, asesoramiento y lugar de protección ante las agresiones de género.


19 de agosto, lunes

22:00 14. Trofeo DIVA - SAT de arrastre de bueyes, en el probadero municipal.

20 de agosto, martes

22:00 14. Trofeo DIVA - SAT de arrastre de bueyes, en el probadero municipal.









Ondo pasau, Ondo pasau... Pasatzeke!



Festak berdintasunin



- Larrialdietarako **112**
- Urola Kostako Ertzaintza **943 08 37 80**
- Udaltzaingoa **943 85 71 71**
- Indarkeria matxista **900 840 111 / 016**
- Sexu indarkeriari arreta integrala emateko zerbitzua **900 840 188**
- LGBTIfobia **028**
- Arraza edo etnia diskriminazioa **021**



AZKOITIA
Udala

